

Sweet movie

LUZIEEN ETXEZHARRETA



KATYN izenak Euskal Herriko hainbat neska edo emazteen aurpegi gozoa dakar gogora. Egun hauean agertzen diren berriek izen honi Stalinen krima izigarriaren baten egari lotzen dute.

Bielorusian sartu zirelarik, 1941ean, tropa alemanek Katyneko oihanean 4.000 armadako ofiziale poloniar erahilak aurkitu zituzten. 'Im Wald der Katyn' filme bat egin zuten: lurretik ateratu gorpuen jantziak, bolsetan, argazki, paper eta dokumentu minak ageri ziren. 'Krima komunista' zirenak irabazle sobietarrek 'Krima nazia' bihurtu zituzten. Gaur arte egia zalantzan utzi zen.

Moskun izendatu batzordeak egia jakin arazi du: Ribbentrop eta Stalinen hitzarmenak ekarri zuen Poloniako zati bat 1939ko irailaren 17an Sobietarren kontrolpean jarzea. Bertako armada atxilotu zuten eta 14.000 ofiziale eta soldado erahil ziren 1940ko apirilaren 3.897 Katynen, 4.403 Kharukoven eta 6.295 Kalininen.

'Sweet Movie' filme antiagarrarian Dusan Makavejev erahilketa izugarriaren irudiekien jolasean ari zen, heriotzaren ezinbesteko atzarmarretan, kapitalismo eta sozialismoaren barbaria agertuz. Diote Kroaziako Uztaxien buruzagiak, Ante Pavelitxek Serbiar erahilen begiekin pateak egiten zituela. Serbiarrek gaur erahilen gorpua agertzen dituzte etsaia hori mendekatzeko. Ez dira garai gozoak gaur.

Erahilketaz erahilketa eraiaki da Historiaren zurubia, kriminalak beti nagusi. Gorroto eta herriak Euskal Herria ere egin dute, noizbaiteko gozotasunaren zai gaude.

Neurkerak

TXILLARDEGI



BERRIRAKUR dizagun «U.P.V.» delakoaren Estatutuak:

«72. artikulua. 1- Errekto-rea, Unibertsitatearen klausuroak, beren zerbitzuak bertan eskaintzen dituzten Unibertsitateko katedraturen artekin hautatuko du, eta Autonomi Elkarteak organo egokiak izendatuko».

«243. artikulua (Unibertsitatearen eskubideez): b) Unibertsitatearen organo guztietan edozein hizkuntza ofizialez harremanak izatea». (Errekto-rea, «organo pertsonabakarra» da).

Laura Mintegik (eta gauza bera inguratzen duten hautagai guztiak) euskaraz ongi daki. Laurak ekarpen ezagunak ditu euskararen alorrean; bai literaturgintzan, bai kazetaritzan. 243. artikulua aisa betetzen du. 72. artikulua, aldez ez du betetzen.

Orain arte Errekto-rea egon den: Barberak, berriz, 243. artikulua ez zuten betetzen: euskaraz kulturaren alorrean arrotza zen erabat, erdaldun peto eta egoskorra. Baina: «no problem». Eta hor egon da lasai. (Bide beretik *bide dato*: beste bi errekto-geiak, bidenabar esateko). Baina, hori bai, Barberak 72. artikulua betetzen zuen. Aski, hitz batez.

Gauzak garbi gaude, beraz: Euskal Unibertsitate aurrera eramateko, «katedro» izan behar da. Baina *euskalduna* izatea ez da beharrezkoa. 243. artikulua gainera gaitetik pasa daiteke; 72. artikulua gaitetik inola ere ez.

Nor harrituko da, ordea, Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritzaren berri, erdaldun porokatu eta anti-euskaldun nabarmen baten eskuetan jarri dutela jakinik? Nor da Buesa euskal kulturaren alorrean?

Badirudi Laura Mintegik eta «Ertza» taldeak merezi dituztela abertzaleen txaloak.

Baina kafkazar zulo kirats honetan, nor kez segurtatuko?

The Guardian

Balkanetako ameskaiztoa

Balkanetan sortzen ari diren diktadurak Europako bihotzera hedatzea eragozteko erabakia hartua duten Mendebaldeko gobernuek adituen eta aholkularien laguntza soilia baino askoz ere gehiago eman beharko dute. Bestela, orain dela ia bi urte amets ederra izan zena Europaren ameskaiztoa bilaka daiteke laster.

JONATHAN EYAL


Diario 16

Denetik gerta liteke

Lege horretan okerrena eta kezagarriena ez da lege bera kontutan hartzea eta Estatu erdi-polizialera igarotzeko urratsa, baizik eta Barne Ministroak justifikatzeko eman argudio bitxia, noski, Gobernu osoa eta diputatu sozialista guztien laguntzarekin.

(...) Corcuera —GALekin

HEMEROTEKA



OROZ / DIARIO DE NAVARRA

gertatu bezala eritzi eremu jakinetatik— berriro ere justifikatu egin ditu hiritarren askatasunei eraso egiten dieten bitartekoak, lortu nahi den helburua gainetik jarrita. Noski, horrela pentsatzen eta iharduten denean, Zuzenbideko Estatuak porrot egiten du.

EDITORIALA

ARGIA

Hala eta guztiz ere mugitzen da

Komunismoaren porrota ez da inolaz politikan izan, ezta burubidezkoa izan ere, bai ordea huts ekonomikoa. Gerra Hotza zela eta izkizluz hornitu behar izatea horrek

min handia ekarri dio Soviet Batasuneko ekonomiari. Honez gain, kontuan izaten baldin badugu herri honek dituen ekaiek ekartzen dituzten mozkinak neurritz gorako funtzionarioek urtutzen dituztela, eta izadiaren neurrigabeko mamia ateratzeko eman dituen hondamenak inoiz ezingo direla lehengoratu, berehala antzemango diogu Marx ez zegoela gaizki politika eta ideologiaren gainetik faktore ekonomikoak daudela adierazi zuenean.

JUAN MANUEL VELAZQUEZ

EL PAIS

Zirkulu karratua

Ez dago zertan zalantzan

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

«Kilometroak» eta metroak

Umetan, eskolan idazlanak egiteko eskatzen zigitenean, ez nuen ulertzen gehiegi zertarako ziren hainbeste buruhauste eta ahaletan gaia asmatzen eta ondoren burutzen; zigortzeko apropos sortutako ariketaz zirudien.

Bizitzak erakutsi dit zein beharrezkoa den askotan barruko kezka, izpi eta zama, lerro batzuen bidez kanporatzea. Atsedean ederra hartzen da horrelakoetan, nahiz eta, ziur aski, inor gutxi irakurri.

Duela gutxi ere (urte honetako Maiatzean) zenbait kezka askatu beharrean nintzen eta bai artikuluak bai bidali ere zenbait aldizkari eta egunkaria. Bitan argitaratu zuten, (Argian eta EGUNKARIAN 1991ko maiatzaren 28an) eta bada zerbaiz. Terapia ona da: mesede egin zidan eta bide bera hartzea noa.

«Kilometroak» direla eta, buruak egin dizkiz hainbat kilometro jira eta biran. Tira diezaiodan hariari, kezka korapiloa luza dadin.

«Euskal eskola publikoaz» idatzi nuen hartan, nire ustez

oinarrizkoa den ideia bat azpimarratu nahi izan nuen: ikastola, institutu eta gainontzekoak ez direla helburu, euskaldunon helburu den *euskal irakaskuntzarako* bide baizik.

Ikastolatik institutuera zihoazen ikasleek euskaraz ikasten jarrai zezaten egin genuen urrats eta apostu irakasle askok, zenbait kasutan ikastola beraren planteamenduetan eta gurasoei hala adierazita.

Laurogeigarren hamarkada gauza askogatik izango da ezaguna, baina askorentzat bihotzrearen zapora dauka, institutu herritua eta euskaldundu nahirik emandako urteen oroitzapenak. Lanak lan eta buruko minak buruko min, asko da lortu dena eta egun ikastolan ari ez garenik ere ez dugu pentsatzen, euskal irakaskuntzan ari bait gara. Guraso, ikasle eta irakasleon lanikidetzarekin eskola duna sortzea dugu helburu eta horretan dihardugu.

«Kilometroak eta metroak» tituluarekin hasi bannaiz, laster uleruko duzue zergatik den. Kilometro asko, «marato» bat buruzterainoko beste kilometro egin beharra dugu oraindik euskal irakaskuntza-

rik eskaintzen ez den tokietan; ez dezagun esan zenbat dagoen egiteko Nafarroan bertan eta Iparraldean. Baina hainbeste kilometro egin gabe, ukondo-ukondo lan beretsua egiten ari garenok ez al dugu elkarrengana hurbildu behar?

Ikusten direnak ikusita, entzuten direnak entzunda, batek ez daki zer pentsatu ere. Izan ere, kilometrotara daudene ematen dituzten aholkuei jarraitzeko prest agertzen diren zenbaitzuek ez dute, nik ez dut ikusten, behintzat, metro batzura helburu beretsua (?) eta lan berean ari direnengana hurbiltzeko urratsik ematen. Nire ametsetako federazioak harreman horiek indartu eta bultzatzeko hasi beharko luke, denon artean oraindik emateko dauden milaka urratsetako kilometro egin ditzagun.

Joan zen astean alabak zera galdutu zidan: «Aita, joango gara Bergarara «kilometroak» egitera? Nik baietz nagi bat egin nion. Baietza, oraindik asko dugulako egiteko; eta «nagia», metroen arazo horrek nahigabetzen nauelako.

Anjel Ugarteburu

(ELGOIBAR)

PERTSONAIA



Juan Luis Larraza

Aberririk ez dago, hizkuntzarik gabe. Guk izan behar degu, hizkuntzaren jabe. Euskara erakutsi, egun eta gaue Ta zuk ezin badezu utzitzea hobe.

ANJEL MARTIKORENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

LUZIEEN ETXEZHARRETA

INAKI URIA

Genetean:

INMA GOMILA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 80090

HELBIDEAK

Egotea soziala, Puzitate eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / ☎ 37 15 45 / Faxe: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloan / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxe: 36 54 93

Arabak: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxe: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 7879 / Faxe: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxe: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11